

## 8. JARDUERAK

Gure enpresaren jarduera nagusia, aplikazioan bezeroei arropa konbinazio ezberdinak egitea da, zerbitzu bat eskaintzea hain zuzen ere.

Horretaz gain, sare sozialen bitartez hurrengo ekintzak egingo ditugu:

Promoioak eta zozketak agertuko dira bertan, eta horrez gain aplikazioa ezagutzen ez duten pertsonak produktuari buruz informatu ahalko dira, eta dituzten duda guztiak argitu.

Plataforma eta sare sozialetan egingo ditugun jarduerak guk kudeatuko ditugu, modu horretan bezeroei hurbiltasuna bermatuko diegu eta egiten dizkiguten eskaera guztien berri izango dugu inolako bitartekaririk gabe.

Gure bezeroek aplikazioaren erabilerarekin arazorik izan ez dezaten, aplikazioa deskargatzen duten lehen aldian, armairua antolatzeko eta aplikazioa bideo baten bidez erabiltzeko oinarrizko tresnak erakutsiko zaizkie.

